
**UPV/EHUko GARAPENERAKO
LANKIDETZA BULEGOAREN
MEMORIA**

2015/16 ikasturtea

Edukia

1. AURREZPENA.....	¡Error! Marcador no definido.
2. UPV/EHUko GARAPENERAKO LANKIDETZA BULEGOA: BULEGOAREN HELBURU NAGUSIAK.....	4
3. UPV/EHUko GARAPENERAKO LANKIDETZA BULEGOAREN EKINTZAK.....	4
3.1 Beste erakunde batzuekin batera garapenerako lankidetzak bultzatzeko egindako hitzarmenak.....	4
3.2 Garapenerako unibertsitate lankidetzako proiektuetarako diru laguntzen deialdia.....	6
3.3 Gizarte mugimenduekin batera jarduerak egiteko diru laguntzen deialdia.....	7
3.4 Unibertsitateko kideentzat antolatutako garapenerako lankidetzari eta hezkuntzari buruzko jardunaldi eta jarduerak.....	7
3.5 Asilo eskatzaileen eskubideen alde egindako jarduerak.....	9
3.6 Aholku teknikoa irakasle-ikertzaileei, AZPko langileei eta ikasleen elkarthei.....	12
3.7 Garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren inguruan UPV/EHUko ikasleentzat antolatutako ikastaro monografikoak.....	12
3.8 Unibertsitateko praktikak eta gradu amaierako lanak (GRALak) garapenerako lankidetzan egiteko programa.....	15
3.8.1. Programaren faseak eta jarduerak.....	16
3.8.2. Programan parte hartzen duten giza baliabideak.....	17
3.8.3. Programaren 13. edizioaren (2015/16) eboluzioa eta emaitzak.....	17
3.8.4. Lankidetzak formula berriak programa sendotzeko.....	21
3.8.5. Programaren amaierako balorazioak.....	22
2015eko AURREKONTUA, GENERO IKUSPEGIAREKIN.....	23

1. AURKEZPENEA

Mundu globalizatu honetan, desoreka sozialak, ekonomikoak eta ingurumenarenak gero eta konplexuagoak direlarik, unibertsitateak garrantzi handiko ardura dauka, gizakien garapena munduko toki batean eta bestean baldintzatzen duten arazo ugariak ikertzeko eta haien berri zabaltzeko lekua den neurrian. Gainera, etorkizuneko belaunaldiak prestatzeko eginbehar garrantzitsua ere badauka unibertsitateak, pertsona horiek parte har dezaten gizartearen arazoak gaineko eztabaidetan, ekitatearen, jasangarritasunaren eta giza eskubideen errespetuaren alde.

Ardura hori onarturik, Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Legearen hitzaurrean (apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoaren bidez eguneratua) lehen aldiz aipatzen da unibertsitatea balioen funtsezko transmisorea dela, eta unibertsitateak aparteko arduraz sustatu behar dituela herrialdeen arteko elkarrizketa, bakea eta lankidetzak. Era berean, nazioarteko lankidetzaz eta elkartasunaz diharduen 92. artikuluan, **legeak dio unibertsitateek sustatuko dutela bere kideen parte hartzea nazioarteko lankidetzako eta elkartasuneko jarduerak eta proiektuetan**, eta bultzatuko dituztela bakearen kultura, garapen jasangarria eta ingurumenarekiko errespetua sustatzen dituzten jarduerak eta ekimenak, balio horiek aurrerabide solidarioaren funtsezko elementuak diren aldetik.

Bestalde, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutuen lehen tituluak UPV/EHUren izaera eta helburuez dihardu, eta bertan esaten da unibertsitateak nazioarteko trukea eta lankidetzak indartuko dituela, eta beren-beregi aipatzen da garapenerako lankidetzak. Garapenerako unibertsitate lankidetzak aberasgarria da, alde humanotik nahiz akademikotik, bai lankidetzan diharduten pertsonentzat eta bai haien unibertsitateentzat. Premisa hori abiapuntu, UPV/EHUK, 2007ko otsailaren 8ko Gobernu Kontseiluaren bileran, Garapenerako Lankidetzak Arloko Unibertsitateen Jokabide Kodearekin bat egitea onartu zuen, Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Batzarreko (CRUE) Nazioarteko Harremanetarako Espainiako Unibertsitateen Batzordeak (CEURI) onetsia.

Euskal Herriko Unibertsitateak batez ere bi egituraren bitartez jarduten du garapenerako lankidetzan: **UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzak Kontseiluaren bidez** eta **UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzak Bulegoaren bitartez**.

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzak Kontseilua UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2009ko uztailearen 22ko Erabakiaren bidez eratu zen, unibertsitateko kideentzako lan, kontsulta eta parte hartzerako organoa izan zedin garapenerako lankidetzaren arloan. Garapenerako lankidetzak finantzatzen duten edo arlo horretan lan egiten duten administrazio eta zerbitzuak langileek (AZP), irakasleek eta ikasleek osatzen dute Kontseilua.

Gainera, Garapenerako Lankidetzak Bulegoko teknikariak idazkari lanak egiten ditu kontseiluaren bilera guztietan.

Garapenerako Lankidetzak Bulegoa Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzari atxikita dago. UPV/EHUK zerbitzu hau sortu zuen *garapenerako unibertsitate lankidetzak* sustatzeko, hau da, unibertsitateko kideek beste gizarte batzuen gaitasunak —bai eta geure gizartearenak ere— sendotzearen alde lankidetzaren bidez egiten dituzten elkartasun ahalegin guztiak sendotzeko, bereziki unibertsitatearen eta hezkuntzaren arloan. Zehatzago esanda, **bulegoak koordinatu, lagundu eta bideratu nahi ditu unibertsitateko komunitatearen sektore desberdinek garapenerako lankidetzan egiten dituzten ahaleginak.**

2. UPV/EHUko GARAPENERAKO LANKIDETZA BULEGOA: BULEGOAREN HELBURU NAGUSIAK

Hona hemen bulegoaren helburu orokorrak:

- Garapenerako lankidetzaren eta hezkuntza unibertsitatearen gizarte eginkizunean txertatzea.
- Elkartasun balioetan eta balio unibertsalistetan oinarritutako prestakuntza sustatzea, gure ikasleek gizarte arazoei buruzko eztabaidetan parte har dezaten, ekitatearen, jasangarritasunaren eta giza eskubideen errespetuaren alde.
- Munduko leku batean eta bestean gizakiaren garapena baldintzatzen duten era askotako arazoak ezagutzea, ikertzea eta haien berri zabaltzea, unibertsitateko kideak arazo horietaz jabetu daitezzen.
- Garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren zerbitzura giza baliabide espezializatuak jartzea, eta beste erakunde eta gizarte eragile batzuekin batera, lankidetzarako proiektu eta programak abian jartzea.
- Elkartasun aktiboa eta boluntario lana indartzea unibertsitateko kideen artean, ikasleen artean batik bat, eta erraztasunak ematea boluntario lana esparru espezifiko batean egiteko, horretarako programa propioak sortuz edo beste erakunde batzuekin kolaboratuz.

3. UPV/EHUko GARAPENERAKO LANKIDETZA BULEGOAREN EKINTZAK.

Helburuok lortzeko, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak hainbat **ekintza** egiten ditu garapenerako unibertsitate lankidetzaren hainbat esparrutan. Hona hemen garrantzitsuenetako batzuk:

3.1 Beste erakunde batzuekin batera garapenerako lankidetzaren bultzatzeko egindako hitzarmenak

Azken urteotan hitzarmenak sinatu ditugu Euskadiko eta kanpoko hainbat erakunde eta entitate sozialekin. Hitzarmenoi esker unibertsitatearen eta gizartearen arteko lotura sendotzen jarraitzen dugu, zabalkunde programetan parte hartuz eta irakaskuntzan, prestakuntzan eta ikerketan trukeak eta kolaborazioak eginez.

2015/16 ikasturtean honako hitzarmen hauek bideratu ziren UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoan:

Beste administrazio publiko batzuekin egindako hitzarmenak:

- *Lankidetzaren hitzarmena, Arabako Foru Aldundiaren eta UPV/EHUren Arabako Campuseraren artekoa, «Fortalecimiento del sistema de educación intercultural bilingüe en Ecuador» proiektuan laguntza emateko.*
- *Lankidetzaren hitzarmena, EUSKAL FONDOAREN eta UPV/EHUren artekoa, praktikak eta gradu amaierako lanak garapenerako lankidetzaren proiektuetan egiteko UPV/EHUko 2015/16ko programan kolaboratzeko.*
- *UPV/EHUren eta Bilboko Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena, diru laguntza emateko garapenerako lankidetzarako laguntzan lehentasuna duten herrialdeetatik eta gure unibertsitatearekin hitzarmena daukaten unibertsitateetatik datozen ikasleei, ostaturako eta mantenurako. 2015/16 ikasturtean, Bilboko Udalaren Berdintasun, Lankidetzaren eta Jai Sailak 10.000 € eman dizkigu, UPV/EHUko deialdi publiko baten bidez banatzekoak. Ikasturte honetan lau*

ikaslek jaso dute laguntza hori, **bi neskek eta bi mutilek**.

Euskal entitate sozialekin egindako hitzarmenak:

Hitzarmenak egin dira **Euskadiko** hainbat GGKEekin, eta haiei esker sendotu da praktikak eta gradu amaierako lanak garapenerako lankidetzan egiteko programa:

UPV/EHUko IKASTEGIA	LANKIDETZAKO EUSKAL ERAKUNDEA
Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (Eibar)	MGI (Mugarik Gabeko Ingeniaritza)
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	AMASSUNU EUSKAL FONDOA ASOCIACIÓN GETXO PRO SAHARA ATFAL FUNDACIÓN TAU (Solidaridad y Cooperación)
Arkitektura GET	EUSKAL EUSKAL FONDOA ARQUITECTOS SEIN FRONTERAS-PAIS VASCO
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	EUSKAL FONDOA
Psikologia Fakultatea	EUSKAL FONDOA
Farmazia Fakultatea	EUSKAL FONDOA

Programa horren barruan, **beste herrialde batzuetako entitateekin** ere sinatu dira hitzarmenak.

UPV/EHUko IKASTEGIA	ATZERRIKO LANKIDETZA ERAKUNDEA
Arkitektura GET	Entidad TECHO- Guatemala
Gizarte eta Komunikazio Zientzien F.	Entidad TECHO- Guatemala
Ekonomia eta Enpresa F.	Kakani International Scout Centre- Nepal.

Practicuma eta praktikak garapenerako lankidetzan egiteko programaz gain, beste hitzarmen batzuk ere egin dira boluntariotza sustatzen duten EAEko zenbait entitate sozialekin: **GIZALDE, Gipuzkoako SOS ARRAZAKERIA, KAEBNAI, AEMAR, AVIFES eta ARABAKO GURUTZE GORRI**ekin. Lankidetzan Bulegoak jarraipena egiten die elkartasun eta lankidetzan jardueretan dabiltzan ikasleei, ikasleentzako aurretiko prestakuntza antolatzen du boluntariotza agentziekin batera (Boluntario edo Gizalde), harremanetan dago entitate sozialekin eta **kredituak aitortzeko**

ziurtagiria ematen die ikasleei. 2015/16 ikasturte honetan guztira **672 kreditu aitortu zaizkie 257 ikasleri**. Ikasleok hiru campusetako 23 ikastegikoak izan dira, horietatik 196 emakumeak, eta 61, berriz, gizonak.

3.2 Garapenerako unibertsitate lankidetzako proiektuetarako diru laguntzen deialdia.

Deialdiaren helburua da sustatzea UPV/EHUko kideen parte hartzea garapenerako unibertsitate lankidetzako proiektuetan, giza garapen txikiagoa duten herrialdeetako biztanleen bizi kalitatea eta bizi baldintzak hobetzen laguntze aldera; era berean, unibertsitateko kideengan kontzientzia kritikoa sortzea eta aldaketa sozialerako ekintzekiko konpromiso solidarioa piztea. Horrela, UPV/EHUk laguntzak ematen ditu UPV/EHUko kideek bideratutako garapenerako lankidetzako proiektuak finantzatzeko, zati batean edo osorik. Proiektuok alor hauetakoak izan daitezke: irakaskuntza eta prestakuntza; garapenerako ikerketa; informazioaren, ezagutzaren eta teknologiaren transferentzia; garapen bidean dauden herrialdeetako unibertsitateen sendotze instituzionala; garapenerako hezkuntza.

2015/16 ikasturtean garapenerako unibertsitate lankidetzako proiektuetarako diru laguntzen deialdi bat ebatzi da, Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko errektoreordearen 2016ko otsailaren 5eko Erabakiaren bidez. Deialdi honetan 30.224,56 euro banatu dira guztira, eta proiektu bakoitzari gehienez 15.000 euro esleitu zaizkio. Azken urteotan bezala, Garapenerako Lankidetzako Bulegoak tutoretza saio pertsonalizatuak eskaini ditu eskariak nola egin irakasteko. Gure iritziz, aholkularitza hau ezinbestekoa da garapenerako lankidetzako proiektuak egiten esperientziarik ez duten irakasleek eta AZPkoek proposamenak aurkeztu ahal izateko.

Diru laguntza haueri esker lau proiektu berri jarri dira abian 2016an Nikaraguan, Dominikar Errepublikan, Brasilen eta Argentinan.

Garapenerako unibertsitate lankidetzako (GUL) proiektuak 2016		
Proiektuaren izena	Arduraduna	Laguntza
Evaluación técnica y social de fogones mejorados de biomasa autoconstruidos por familias de comunidades rurales de Nicaragua.	Constanza Lobo Igartua (Mugarik Gabeko Ingeniaritza)	8.553,60 €
Herramientas audiovisuales para el empoderamiento de comunidades desfavorecidas en la implementación de los Objetivos de Desarrollo Sostenible. Cooperación de la UPV/EHU con la universidad de San Paulo para el desarrollo sostenible de la Favela Sao Remo.	Irati Agirreazkuenaga Onaindia. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	10.000,00 €
Sierra Prietako komunitatearen garapenerako ezagupen, ahalduntze eta parte-hartzea sustatzeko proiektua.	Rakel Oion Encina Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea	4.670,96 €
Consumo de alcohol y otras drogas, y exposición a la violencia en adolescentes en situación de vulnerabilidad educativa y social, en el área metropolitana de Buenos Aires (Argentina): Herramientas para el profesorado"	Patricia Insua Cerretani Psikologia Fakultatea	7.000,00 €

Era berean, jarraipena egin diegu 2015eko deialdian diru laguntza jaso zuten proiektuei. Azken fasean daude eta 2016ko azken lauhilekoan aurkeztuko dituzte beren ondorioak.

Garapenerako unibertsitate lankidetzarako (GUL) proiektuak 2015		
Proiektuaren izena	Arduraduna	Laguntza
CREACIÓN, DESARROLLO E IMPLEMENTACIÓN DE UNA RED INTERNACIONAL, interuniversitaria e interinstitucional de Estudios sobre Biomimesis (INTERNATIONAL UNIVERSITY NETWORK ON BIOMIMICRY STUDIES)	Unai Tamayo Orbegozo Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	14.000€
Fortalecimiento de la cooperación universitaria entre la F. de Ingeniería de la Universidad de El Salvador y la UPV/EHU	Aitor Gómez Arribillaga (Mugarik Gabeko Ingeniaritza)	10.000€
Fortalecimiento de las capacidades de diagnóstico medioambiental del profesorado y alumnado de la Escuela de Ingeniería en gestión ambiental de la Pontificia Universidad Católica del Ecuador sede Esmeraldas (PUCESE) orientados a la mejora de los proyectos de investigación y vinculación con las comunidades de la zona norte de Esmeraldas. FASE III	DANIEL ZUAZAGOITIA REY-BALTAR Zientzia eta Teknologia Fakultatea	6.000 €
Desarrollo e implementación de un grado de medicina	Enrique Hilario Rodriguez Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	10.000€

3.3 Gizarte mugimenduekin batera jarduerak egiteko diru laguntzen deialdia.

Uste dugu gizarte mugimenduak funtsezko eragileak direla gizartea hobetu eta eraldatzeko alternatibak eta formulak proposatzerakoan, hala haien antolaketa praktika eta kulturengatik, nola errealitateaz egiten dituzten diagnosiengatik, aurkezten dituzten proposamenengatik eta garatzen dituzten strategiengatik. Abiapuntu honetatik, eta unibertsitateko kideek ezagutu ahal izan ditzaten gizartea eraldatzeko ahalegin horretan gizarte mugimenduek aurkitu ohi dituzten arazo eta premiak, eta are haietan murgiltzeko ere, deialdi honen bidez diru laguntzak ematen dira gerturatze horretarako aukera ematen duten ekintzetarako.

2015/16 ikasturtean deialdi hau ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko errektoreordearen 2016ko uztailaren 5eko Erabakiaren bidez argitaratu da. Deialdiaren zenbatekoa 7.500 euro izan da guztira, eta proiektu bakoitzari gehienez 7.500 euro esleitu zaizkio. Deialdiaren zenbatekoa nahikoa ez bada ebaluazio positiboa jaso duten ekintza guztiak finantzatzeko, aztertuko da deialdiaren aurrekontua handitzeko aukera, edo, bestela, era proportzionalan esleituko dira laguntzak.

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzeta Bulegoak 2016ko irailean egingo ditu esleipenak.

3.4 Unibertsitateko kideentzat antolatutako garapenerako lankidetzari eta hezkuntzari buruzko jardunaldi eta jarduerak

Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak zerbitzua ematen die unibertsitateko kideei garapenerako lankidetzaren arloan, eta, ildo horretan, bere eginkizun nagusietako bat da **zabalkunde eta sentsibilizazio lana egitea unibertsitateko kideen artean** (irakasle, AZPko langile eta ikasleen artean) Hegoaldeko hemisferioaren egoeraz, bai, baina baita ere gure gertueneko gizartean dauden desparekotasunez. Sentsibilizazio honen bidez espero dugu errespetuan, berdintasunean, ekitatean eta justizian oinarritutako gizarte bat eraikitzea.

2015/16 ikasturte honetan **lau jardunaldi** egin dira: haietako bi garapen jasangarriaren helburu berriak aztertzeko hainbat eragileren ikuspegietatik; beste bat nazioartekoa, Medikuntza Fakultatean, eta, azkenik, «Garapenerako Lankidetzaren Inguruko Praktiken eta Gradu Amaierako Lanen Programari buruzko I. Topaketa», programan parte hartzen duten eragileak harremanetan jartzeari begira.

2015/16ko jarduerak eta topaketak

Los objetivos de desarrollo sostenible: implicaciones desde la coherencia de políticas y el enfoque de género



2016ko ekainaren 1a

II. Jornada Iberoamericana para el diseño de medidas eficaces para el control de la resistencia a los antibióticos



2016ko irailaren 25a

Garapen iraunkorraren helburuei buruzko jardunaldia Bizkaiko Campusean



2015eko abenduaren 3a

Garapenerako Lankidetzaren Inguruko Praktiken eta Gradu Amaierako Lanen Programari buruzko I. Topaketa



2015eko urriaren 23a

Gainera, 2015/16 ikasturtean zehar Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak gure unibertsitateko kideei zuzendutako beste ekintza batzuk ere antolatu zituen beste entitate sozial batzuekin lankidetzan.

EKINTZA	EKITALDI MOTA	KOLABORATZAILEAK
BOLUNTARIOEN EGUNA	ELKARTASUN KANPAINA	GIZALDE
BOLUNTARIOTZA AZOKA EHUko HIRU CAMPUSETAN	ELKARTASUN KANPAINA	COORDINADORA ONGD DE EUSKADI, BOLUNTA eta GIZALDE
BOLUNTARIOTZA TOPAKETA (UNIKIDE PROGRAMAREN BARRUAN)	ELKARTASUN KANPAINA	BOLUNTA
JANARI BILKETA BIZKAIKO CAMPUSEAN	ELKARTASUN KANPAINA	SOTARAZI
ELKARTASUN UDA	ELKARTASUN KANPAINA	BOLUNTA
ELIKADURA SUBIRANOTASUNAREN ASTEA UPV/EHUko HIRU CAMPUSETAN	PRESTAKUNTZA EKINTZA	BIZILUR

Azkenik, nabarmendu behar dugu HYPERLINK Invisible Express film laburren III. edizioa egin dela. Lehiaketa hau "Film Sozialak" Ikus-entzunezko Nazioarteko Zinemaldian kokatzen da eta UPV/EHUko edozein ikaslek har dezake parte bertan. 2015 urte honetan film laburren **gaia** izan da «**Giza eskubideek ez daukate mugarik**» eta UPV/EHUko 14 ikastegiko 111 ikaslek aurkeztu dituzte lanak (% 53,15 emakumeak). "Aforo Limitado" filmak irabazi zituen bai publikoaren saria (1.000 €) bai epaimahaiarena (500 €).

3.5 Asilo eskatzaileen eskubideen alde egindako jarduerak.

Ikasturte honetan azpimarratzekoa da UPV/EHUk hartutako konpromisoa **Euskal Autonomia Erkidegora etorritako errefuxiatuekin**. Horrela, Gobernu Kontseiluak 2015eko urriaren 1ean aho batez hartutako Erabakiari esker, hainbat ekintza egin dira errefuxiatuei laguntzeko, lau ardatzen inguruan egin ere: oinarritzko laguntza, egoera akademikoaren erregularizazioa, sentsibilizazio edo eztabaidaren sustapena eta laguntza ekonomiko eta materiala. 2015/16 ikasturtean ekintza hauek egin dira ardatz bakoitzean:

- a) **1. ardatza: arlo unibertsitarioko premia bereziei erantzutea**
Errefuxiatuak sartu dira ikasle bisitarietzako ematen ditugun hizkuntza ikastaroetan (gaztelania eta euskara). Orain arte asiloa eskatu duten eta UPV/EHUa aurrematrikula egiten duten bi pertsonak egin dituzte ikastarook.
- b) **2. ardatza: egoera akademikoa erregularizatzea.**
UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzak Bulegoa saiatu da asilo egoeran dauden etorkizuneko ikasleei laguntzen eta informazioa ematen unibertsitatara sartzeko bidez edo espedientea lekualdatzearen inguruan, gure unibertsitatean sartzeko laguntzeari begira.
- c) **3. ardatza: sentsibilizazioa eta eztabaida**

Jardunaldiak eta mintegiak

- **Ongi etorri: migratzea ez da delitua**

2016ko maiatzaren 11. Bizkaia Aretoa (Bilbo)

- **Zer gertatzen da emakume errefuxiatuekin? Hitzaldi eztabaida**

2016ko apirilaren 19a. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea (Leioa)

- **Mahai ingurua Europa eta asilo eskubidea: historia, mugak eta babesa behartutako desplazamenduen aurrean**

2016ko otsailaren 16a. Bizkaia Aretoa (Bilbo)

- **Atzeritartasun eta asiloari buruzko politikak Europar Batasunean: nazioarteko II. konferentzia**

2016ko otsailaren 11 eta 12a. Bizkaia Aretoa (Bilbo)

- **Arabako Campuseko Esperientzia Gelen IV. Jardunaldiak**

2016ko otsailaren 1a eta 2a. (Arabako Campusa)

- **"Errefuxiatuei buruzko mintegia Letren Fakultatean" (Arabako Campusa).**

2015eko azaroaren 23a

Erakusketak

- **Errefuxiatuak Europan: liburu erakusketa Bizkaiko Campuseko Bibliotekan (Leioa)**

EhuGune: asilo eskubideari buruzko ideia jasa.

Orain arte ehuGunek lau saio antolatu ditu errefuxiatuen gaiaz hitz egiteko Bilboko Bizkaia Aretoan. Topaketa hauen helburua da bilgune bat sortzea analisi kritikoak eta unibertsitatean aplikatu daitezkeen proposamen zehatzak aurkezteko. Bertan unibertsitateko, elkarteetako eta gizarte mugimenduetako eragileek hartzen dute parte.

- [2015/11/06](#) (pdf, 30 Kb)
- [2016/02/19](#) (pdf, 130 Kb)
- [2016/05/20](#) (pdf, 66 Kb)
- [2016/06/07](#) (pdf, 90 Kb)

d) 4. ardatza: diru funtsa:

UPV/EHUko Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko

errektoreordearen 2016ko ekainaren 9ko Erabakiaren bidez, deialdia egin zen diru laguntzak emateko Euskal Autonomia Erkidegoan dauden iheslariei laguntzeko ekintzen ondorioz sortutako behar bereziei erantzuteko. Deialdi honen bidez diru laguntzak ematen dira Euskal Autonomia Erkidegoan dauden errefuxiatuei arreta emateko ekintzak finantzatzeko, guztiz edo zati batean. Helburu horretarako sortutako 10.000 euroko funtsaren kargura joan dira. UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2015eko urriaren 1ean emandako Erabakiaren bidez sortu zen funtsa, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden iheslariei laguntzeko ekintzen inguruan. Erabakiaren arabera, UPV/EHUko Lankidetzarako Kontseiluak funts horiek bideratzeko proposamen justifikatuak egingo ditu eta, ikasturte amaieran, gastatutako diruaren berri emango emango dio Gobernu Kontseiluari Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko errektoreordearen bidez. Diru laguntza hauen esleipena 2016ko uztailaren 21eko Erabakiaren bidez argitaratu zen. Haiei esker, honako hauek jarriko dira abian:

1. Sentsibilizazio ekintza bi:

- **«Ciudad Refugio: la voz de los territorios de acogida. Encuentro con autoridades locales».**

Eztabaida mahai bat Aterpe Hirien Sareko agintarien ordezkariekin, Bizkaiko udalerrietan eta UPV/EHUko kideengan areagotzeko asilo bila dabilzan pertsonenganako elkartasuna.

Asmoa dago gonbidatzeko errefuxiatuekiko konpromisoagatik nabarmendu diren lauzpabost agintari, udalerrietakoak edo autonomia erkidegoetakoak, eta mahai inguru bat eta lan saio bat antolatzea, udalerrietako eta unibertsitateko espazioak aktibatzeke UPV/EHUren barruan gai honen inguruan lanean jarraitzeari begira.

- **«Ongi Etorri Errefuxiatuak : Educando la Acogida».**

Bi ekintza giltzarri aurkeztu dira: nazioarteko mintegi bat eta erakusketa ibiltari bat, bisita gidatuekin. Hauek izan dira helburuak:

- a) Unibertsitateko kideek hobeto ezagutzea errefuxiatuen errealitatea: haien egoera, premiak eta Europaren, estatu espainiarraren eta autonomia erkidegoen erantzuna krisi humanitarioaren kudeaketari eta errefuxiatuen harrerari dagokienez.
- b) Biktimizazioaren kontzientzia inklusiboa sustatzea, gizartearen aldeko balioak bultzatzeko eta errefuxiatu eta asilo eskatzaileenganako ezinikusia gutxitzeko.
- c) Elkartasun eta justizia balioak indartzea, errefuxiatuak iristearekin ezinbestean sortuko diren aurreiritziei aurre egiteko, eta horrela arrazakeria eta xenofobia hazi ohi diren giroa eragozteko.

2.- Diru laguntza ematea Ekonomia eta Enpresa Fakultateko etorkizuneko ikasle bati eta Zuzenbide Fakultateko ikasle bati, biak asilo eskatzaileak, unibertsitate ikasketen, garraioaren eta UPV/EHU ostatu hartzearen gastuei aurre egiteko.

Diru laguntzen esleipena, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden iheslariei laguntzeko ekintzen ondorioz sortutako behar bereziei erantzutekoa.

Gaia	Arduraduna	Esleitutako laguntza
IKASLE BAT UPV/EHUⁿ SARTZEA	Ikasle errusiarra	1.500
IKASLE BAT UPV/EHUⁿ SARTZEA	Ikasle kurdo-siriarra	4.500
Jardunaldia: CIUDADES REFUGIO ONGI ETORRI ERREFUXIATUAK:	JUAN HERNANDEZ ZUBIZARRETA	2.000
Jardunaldia: EDUCANDO LA ACOGIDA	MAITANE ARNOSO	1.760
GUZTIRA		9.760

3.6 Aholku teknikoa irakasle-ikertzaileei, AZPko langileei eta ikasleen elkarteei.

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzeta Bulegoak aholku teknikoa ematen die unibertsitateko kideei garapenerako lankidetzaren inguruan. Laguntza teknikoa gehienbat GUL proiektuak idazteko eta haien jarraipen eta ebaluaziorako metodologiari buruzkoa izaten da, bai eta kanpoko diru iturriak bilatzeko teknikei buruzkoa ere.

2015-16 ikasturtean kudeatutako proiektuen laburpen taula

Deialdia	PROIEKTUA	ARDURADUNA	Esleitutako laguntza
FOCAD	Cooperación para un nuevo modelo energético: La transición democrática de la deuda ecológica al buen vivir. Tradebu	Iñaki Barcena	174.845,03 €
UPV/EHUren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena	Fortalecimiento del sistema de Educación Bilingüe en Ecuador III	Joseba Arregi	30.000€
Espainiaren eta Brasilen arteko mugikortasun programa	Brasiliako Unibertsitatea	Gustavo Fernandez	10.000€
	Universidade do Estado do Rio de Janeiro	Oscar Alvarez Gila	19.440€

3.7 Garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren inguruan UPV/EHUko ikasleentzat antolatutako ikastaro monografikoak

Garapenaren arazoak eta gizartearen arteko harremanak gero eta konplexuak

diren honetan, ukaezina da unibertsitateak erantzukizun handia daukala ikertzeko eta ezagutzera emateko gizakien garapena munduan baldintzatzen duten arazo ugariak. Gainera, heztea eginkizun nagusi duen erakundea den aldetik, unibertsitateak hurrengo belaunaldiak prestatu behar ditu parte har dezaten gizarte arazoei buruzko eztabaidetan, ekitate, jasangarritasun eta giza eskubideen errespetuaren alde. Premisa hauek kontuan harturik, UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak UPV/EHUko zenbait ikastegirekin, Hegoa Institutuarekin eta zenbait euskal GGKEekin batera, 2004az geroztik hamar bat ikastaro monografiko antolatzen ditu urtero garapenaz eta lankidetzaz. Ekimen hau 2004an hasi zenetik 86 ikastaro monografiko eman dira, UPV/EHUko hiru campusetan banaturik.

Ikastaro hauek aukera ematen diete UPV/EHUko ikasleei hainbat gaitan sakontzeko, hala nola: hezkuntza; ingurumena; elikadura segurtasuna; genero ikuspegia; parte hartze demokratikoa; pertsonen segurtasun politikoa; garapenaren alderdi teknologikoak; osasuna, hainbat ikuspegitatik; giza eskubideei lotutako arazoak; hazkunde ekonomiko desiragarriko baldintzak; finantza ezegonkortasuna; eta merkatuen globalizazioa.

Ikasturtea hasi aurretik Monografikoen Batzordea biltzen da UPV/EHUko hiru campusetan eskainiko diren garapenerako lankidetzari buruzko hamar ikastaro monografikoen programak zehazteko.

Ikastaro hauetako bakoitzak 50 ordu irauten duenez, gradu ikasketetan hautazko bi kreditu emango dira bakoitzagatik (ikasgelako 20 eskola ordu eta 30 ordu hitzaldi eta mintegietara joanez eta lanak eginez). Ikasgelako 20 orduak honela banatuko dira:

- Lehen zatia batzordeak zehaztuko du eta komuna izango da monografiko guztientzat (sei eskola ordu).
- Bigarren zatia espezifikoa izango da, monografikoa emango den titulazio(ar)en arloari dagokiona (hamalau eskola ordu), eta ikastaroaren arduradunak zehaztuko du. Horrela, edukiak egokituta egoten dira ikastaroa ematen den ikastegiaren titulazioetara.

Parte hartzen duten irakasle gehienak UPV/EHUko irakasleak dira, eta gurekin lankidetzaren hitzarmenak dauzkaten Euskadiko GGKEetako kideak eta unibertsitate elkarteetako kideak. Ikastaro monografiko hauetan parte hartu duten GGKEetako batzuk dira Mugarik Gabeko Ekonomia-lariak, Haurralde Fundazioa, Bidez Bidez, Coopera, KCD, Medicus Mundi-Gipuzkoa eta MGI (Mugarik Gabeko Ingeniaritza).

Ikastaro monografikoa egitea ezinbestekoa da Practicum edo Gradu Amaierako Lana garapenerako lankidetzaren egiteko, eta oso gomendagarria edozelako boluntario lana egiteko UPV/EHUko antolatutako lankidetzaren proiektuetan. Garapenerako Lankidetzaren Bulegoan uste dugu garapenerako lankidetzaren proiektuetan parte hartzeko beharrezkoa dela aurretik horren inguruko prestakuntza izatea.

2015/16 ikasturtean guztira 10 ikastaro monografiko eman dira, eta haiek finantzatzeko UPV/EHUko ikasleen % 0,7 Elkartasun Fondoaren laguntza izan dugu (UPV/EHUko ikasleek matrikularen bidez egindako ekarpenez osatua da funts % 77,36 emakumeak), eta ikasleen balorazioak oso onak izan dira.

ikasturtean parte hartu duten ikasleen kopuruak, sexuaren arabera

	2015-2016	%
Ikasleak	228	% 100
Emakumeak	165	% 72,36
Gizonak	63	% 27,64

UPV/EHUko monografikoak, 2015 - 2016			BERTARATUAK		
BIZKAIKO CAMPUSA			Guztira	Emakumeak	Gizonak
Introducción a la Cooperación y Tecnología para el Desarrollo Humano	Bilboko Ingeniaritza Eskola	2015/10/09 2015/12/12	18	7	11
Cooperación y educación para el desarrollo	Bilboko Irakasleen UE	2016/04/18 2016/05/04	18	11	7
Retos actuales del Desarrollo y la Cooperación en la Economía Global	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	2016/02/12 2016/03/11	31	22	9
GIPUZKOAKO CAMPUSA					
Cooperación solidaria para el desarrollo	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	2015/11/02 2015/11/12	20	19	1
Introducción a la Cooperación y Tecnología para el Desarrollo Humano	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola	2016/02/05 2016/04/08	28	20	8
Hezkuntza eta lankidetzaren garapenean kurtso monografikoa	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	2016/03/02 2016/03/18	25	18	7
Construyendo una Economía Justa	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	2015/11/05 2015/12/10	15	11	4
Cooperación y Arquitectura	Arkitektura Goi Eskola Teknikoa	2016/04/07 2016/04/29	48	41	7
ARABAKO CAMPUSA					
Desarrollo y cooperación solidaria	Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea	2015/09/28 2015/11/23	16	11	5

Cooperación solidaria para el desarrollo	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	2016/04/25 2016/05/18	9	5	4
GUZTIRA			228	165	63

3.8 Unibertsitateko praktikak eta gradu amaierako lanak (GRALak) garapenerako lankidetzan egiteko programa.

Programa hau UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartu zuen 2003ko maiatzaren 13an. Beraren bidez, ikasleek aukera dute nahitaezko praktikak eta gradu amaierako lanak egiteko garapen bidean dauden herrialdeetan lankidetzaren entitateek dauzkaten proiektuetan. Era horretara, beren prestakuntza akademiko-praktikoa osatzen dute esperientzia horren bidez.

Unibertsitatearen eginkizuna da munduan dauden desparekotasunez jabetzen diren profesionalak sortzea, gai izango direnak gizartearen aurrerabidean eragina daukaten arazoez eztabaidatzeko. Programa hau 2003/04 ikasturtean jarri zen abian eginkizun hori betetzen laguntzeko. Programa honen bidez, halaber, UPV/EHUK instituzionalizatu egiten du halako praktiken eskaintza, eta bermatzen du praktikok jarraipena izatea eta ikasleen hezkuntzan eragina izatea. Hauek dira programa zimentatzen duten printzipioak:

Aitortzen du garapenerako proiektuetan egiten diren praktikek pertsona hezteko daukaten balio handia: ikasleek euren prestakuntza akademiko eta profesionala hobetzen dute, gauza berriak ikasteko eta trebetasun berriak garatzeko era ematen dieten esperientzien bidez.

b) Ikasleei garapenerako lankidetzarako motibazio handia eskatzen zaie. Gureak baino oztopo handiagoak eta baliabide urriagoak eta desparekotasun itzelagoak daukaten gizarteekin lankidetzan jarduteko gogoak da garrantzitsuena, eta ez praktika interesgarri edo kitzikagarriak egiteko gogoak. Bai maila pertsonalean, bai profesionalean.

c) UPV/EHUren eta garapenerako lankidetzaren erakundearen arteko elkarlana bultzatzen du, bai praktikak ondo atera daitezkeen eta bai unibertsitateko kideak sentsibilizatzeko jarduerak eragina izan dezaten.

Programa honek diru laguntzen funts bat dauka ikasleei bidaia gastuak eta aseguruak ordaintzen laguntzeko. Laguntza 750 euro da ikasle bakoitzeko. Diru funts hau EUSKAL FONDOAREN ekarpenekin eta UPV/EHUko Ikasleen 0,7 % Elkartasun Fondoko ekarpenekin (hau da, ikasleek matrikularen bidez egiten dituzten ekarpenekin) osatua dago.

Horrela, bi motatako jarduerak bultzatzen dira:

A) GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ALORREKO PRAKTIKAK garapen bidean dauden herrialdeetan. Praktika hauen helburuak dira ikasleek uztartzea prestakuntza akademikoan jasotako elementu teoriko eta praktikoak, eta areagotzea beren gaitasuna errealitate soziala ebaluatzeko eta aldaketa sozialerako estrategiak planifikatzeko, aldi berean arazo sozialak eragotzi, gutxitu eta konpontzeko lanean jardunez, bere prestakuntzaren funtzio profesional desberdinen bitartez.

B) GRADU AMAIERAKO LANAK garapenaren eta/edo lankidetzaren alorrean egitea, UPV/EHUko unibertsitate eskola eta fakultateetako ikasleek graduan jasotako ezagutzak erabil ditzaten GGKEek eta lankidetzaren erakundeek planteatutako «arazo teknikoak» konpontzeko. Honelakoak izan daitezke lanok: teknologia egokien prototipoak; giza garapenerako teknologiei buruzko azterketak; garapenerako lankidetzaren edo laguntza humanitarioaren alorreko programa eta proiektuetan integratutako proiektuak.

Hauek dira programan parte hartzen duten eragileak:

- GGKEak: haienak dira garapenerako lankidetzaren proiektuak.
- Unibertsitateko ikastegiak: haien ikasketa programen barruan nahitaezko praktikak edo gradu amaierako lanak egin behar dira, eta ikasleek praktika edo lanok egiten dituzte GGKEek kasuan kasuko lekuan dauzkaten lankidetzaren proiektuetan.
- Ikasleak: beren prestakuntza profesionalaren parte bat eskuratzen dute curriculumeko praktikak edo Gradu Amaierako Lana garapenerako lankidetzaren proiektu batean eginez.
- Finantzaileak, adibidez Euskal Fondoa (lankidetzaren diharduten euskal entitate lokalen elkarte), zeinak Bilbo, Gasteiz eta Donostiako udalen ekarpenen bitartez —besteak beste—, diru laguntzak ematen dituen ikasleen bidaia gastuen parte bat ordaintzeko.
- UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoa: aldean arteko bitartekaria da, eta berak egiten ditu programak aurrera jarraitzeko egin behar diren zeregin osagarri guztiak (kudeaketa, prestakuntza eta ebaluazioa).

3.8.1. Programaren faseak eta jarduerak

Faseak	Jarduerak	Xedeak	Calendario
Ikasleen eta lankidetzaren entitateen arteko lehen kontaktua	- Ikastegi bakoitzean programaren berri zabaltzea. - Lankidetzaren entitateak aurkeztea ikastegietan.	Programan parte hartu gura duten ikasleak eta lankidetzaren entitateak identifikatzea	Apirila
Praktikak eta gradu amaierako lanak egiteko laguntzen deialdia	- Deialdiaren zabalkundea eta ebazpena - Ikastegi bakoitzak hitzarmena egitea lankidetzaren entitate bakoitzarekin - Programaren Jarraipen Batzordea eratzea ikastegi bakoitzean	Diru laguntzak esleitzea, irizpide objektiboen arabera	Maiatza eta ekaina
Ikasleek kolaboratzea eta prestakuntza hartzea lankidetzaren entitateetan	- Tutoreak eta begiraleak izendatzea - Praktika plana eta «lankidetzaren eta prestakuntza» plana prestatzea entitateekin - Lankidetzaren eta prestakuntza planean adostutako jarduerak burutzea. (Jardueraren horietako batzuk ikastaro monografikoak dira) - Lankidetzaren entitateak ikaslearen ebaluazio txostena egitea	Praktiketarako eta GRALA egiteko ikasle egokiak hautatzea	Urritik hasita eta kasuan kasuko herrialdera joan arte

Praktikak eta GRALa egitea, eta haien jarraipena eta ebaluazioa egitea	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek praktikak egitea garapen bidean dauden herrialdeetan - «Entitateko begiraleak» jarraipena egitea praktikei, eta adostutako txostenak bidaltzea - Inplikaturako eragileek praktiken ebaluazioa egitea 	Praktikak eta GRALak egitea eta ondo ateratzen direla bermatzea	Urtarriletik irailera
--	---	---	-----------------------

3.8.2. Programan parte hartzen duten giza baliabideak

- Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak programak ondo funtzionatzeko egin behar diren administrazio, koordinazio eta jarraipen lan guztiak egiten ditu, tartean GGKEekiko hitzarmenak tramitatzea, parte hartzen duten ikasleak datu basean sartzea eta urteko txostenak aurkeztea ikastegi bakoitzeko Practicumaren eta gradu amaierako proiektuen arduraduneri.

<http://www.ehu.eus/eu/web/oficop/home>

- Ikastegi bakoitzeko Practicumaren eta gradu amaierako proiektuen arduradunek programaren berri zabaltzen dute beren eskola edo fakultatean, biltzen dira ikasleak proiektuetara eramateko interesa duten GGKEekin eta irakasleekin, lekuetara bertara joaten dira tokian tokiko kideak ezagutzera eta jarraipena egitera praktiketan dauden ikasleei, eta programaren emaitzen ebaluazioa egiten dute urtero. Ikasturte bakoitzean Practicumaren arduradun bi gutxienez praktiken lekuetara bertara joaten dira, Practicumaren ebaluazioa egitera.

- Programan sartzeko egin beharreko ikastaro monografikoen koordinatzaileak (irakasle-ikertzaileak). Monografikoan esku hartu behar du ikastaroa emango den ikastegiko irakasleetako batek gutxienez. Monografikoen batzorde bat dago, osakide hauek dituen: monografikoen koordinatzaileak, UPV/EHUko Gizarte Erantzukizuneko zuzendaria, Garapenerako Lankidetzako Bulegoko teknikaria eta Hegoako ordezkari bat. Batzorde honek ezartzen ditu monografikoak diseinatzeko arauak eta monografikoen gutxienezko edukiak, eta ikastaroen ebaluazioa eta hobekuntzarako proposamenak egiten ditu urtero.

- Ikasleen praktiketarako proiektuak proposatzen dituzten UPV/EHUko irakasle-ikertzaileak eta AZPko langileak. Adibideak: Ekuadorreko proiektua, Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko irakasleekin eta irakasle eskoletako irakasleekin egina; Arkitektura Goi Eskola Teknikoaren proiektua.

- Ikasleen elkarteak, hala nola MGI, Bionatur edo Arquitectura sin Fronteras, beren arloko monografikoak diseinatzen eta antolatzen laguntzen dutenak.

- Programa finantzatzen laguntzen duten administrazio publikoak.

- UPV/EHUtik kanpoko GGKEak, zeinen proiektuetan egiten dituzten praktikak UPV/EHUko ikasleek. Haien ere esku hartzen dute monografikoetan, normalean prestakuntzaren zati praktikoan.

3.8.3. Programaren 13. edizioaren (2015/16) eboluzioa eta emaitzak

Adierazle garbiak daude praktiken eta gradu amaierako lanen programa honen emaitza onak erakusten dituztenak, bai ikasleen sentsibilizazioari eta

elkartasunaren sustapenari dagokionez eta bai UPV/EHUko ikasleek honelako praktikez erakusten duten interes gero eta handiagoari dagokionez. Abian jarri zenetik 13. ediziora (2015/16 ikasturtea) programa honen bitartez **16 ikastegiko 929 ikasle** mugitu dira programa honekin. **Ikasleok** Latinoamerika, Afrika eta Asiako **23 herrialdera** joan dira praktikak egitera hogeita hamar bat erakundek kofinantzatutako garapenerako proiektuetan.

Hamahirugarren edizioan (2015/16) UPV/EHUko 81 ikaslek hartu dute parte programan. Ikasleok Latinoamerika, Afrika eta Asiako **15 herrialdera** joan dira praktikak edo gradu amaierako lanak garapenerako lankidetzan proiektuetan egitera.

**Praktikak eta GRALa garapenerako lankidetza proiektuetan egiteko programan
parte hartu duten ikasleak, sexuaren arabera
2015/2016**

	2015-2016	%
Ikasleak	81	% 100
Emakumeak	57	% 70,37
Gizonak	24	% 29,63

Azpimarratzekoa da emakumezko ikasleen parte hartze handia. Ikasleen % 70,37 baino gehiago dira.

**Praktikak eta GRALa garapenerako lankidetza proiektuetan egiteko programako
xede herrialdeak. 2015/2016 ikasturtea**

HERRIALDEA	IKASLEAK, GUZTIRA
Argentina	6
Bolivia	12
Txile	2
Kolonbia	2
Ekvador	1
El Salvador	10
Etiopia	2
Guatemala	5
Mozambique	2
Nepal	1
Nikaragua	9
Peru	16
Puerto Rico	3
Dominikar Errepublika	7
Sahara	3
GUZTIRA	81

Ikasleen banaketa, jatorrizko ikastegiaren eta campusaren arabera (2015/16)

IKASTEGIA	IKASLEAK	LANKIDETZA ERAKUNDEA	HERRIALDEA
ARABAKO CAMPUSA			
Hezkuntza eta Kirola	4	Euskal Fundoa (4)	Guatemala (4)
Gizarte Langintza	7	PIES por la Tierra(2) NTD Ingredientes(2) CODEINFA(2) ADSI(1)	Argentina (2) Dominikar Errepublika (2) Txile(2) Peru (1)
Farmazia	1	PUCESE (1)	Ekuador (1)
BIZKAIKO CAMPUSA			
Irakasle Eskola	3	UN Mujeres Saharais Fundación Mahatma Gandhi (2)	Sahara (1) Dominikar Errepublika (2)
Ingeniaritza GET	5	Asoc. Zabalketa de Cooperacion ISF/MGI Fundacion Mozambique Sur	Bolivia (2) EL Salvador(2) Mozambique (1)
IITUE	1	ISF/MGI	EL Salvador (1)
Gizarte eta Komunikazio Zientziak	4	Euskal Fundoa (4)	EL Salvador (3) Guatemala (1)
Zientzia eta Teknologia	2	ISF/MGI	Argentina (2)
GIPUZKOAKO CAMPUSA			
Erizaintza	2	Medicus Mundi (2)	Peru (2)
Filosofia eta Hezkuntza Zientziak	18	Haurralde (9) Bidez Bide(1) Bakea eta Duintasuna(1) AMS(2) UNAD(1) TAU Fundazioa(2) Asoc.Getxo Pro-Sahara ATFAL(2)	Bolivia (4) Peru (6) Argentina (2) Kolonia (2) Nikaragua (2) Sahara (2)
Psikologia	15	Haurralde (14) Euskal Fundoa (1)	Bolivia (6) Peru (4) Nikaragua (1) Puerto Rico (3) EL Salvador(1)
Irakasle Eskola	10	Haurralde (8) Etiopia Utopia Fundazioa Tikal (2)	Dominikar Errepublika (3) Peru (3) Nikaragua (2) Etiopia (2)
Arkitektura	5	Euskal Fundoa (5)	Nikaragua (2) EL Salvador(3)
Enpresa	1	Kakani International Scout Centre	Nepal(1)
Politeknikoa	1	Euskal Fundoa (1)	Nikaragua (1)

IITUE-Eibar	2	MGI (1) Fundacion Mozambique Sur(1)	Nikaragua (1) Mozambique (1)
GUZTIRA	81		

3.8.4. Lankidetzaren formula berriak programa sendotzeko.

Euskal Fondoarekin lankidetzan, 2015/16 ikasturtean «Gaztenpatia» proiektua jarri da abian. Unibertsitatearen eginkizuna izanik munduan dauden desparekotasunez jabetzen diren profesionalak sortzea, gai izango direnak gizartearen aurrerabidean eragina daukaten arazoez eztabaidatzeko, proiektu honek eginkizun hori betetzen laguntzea du helburu, eta UPV/EHUren eta Euskal Fondoaren arteko hamar urtetik gorako kolaborazioaren emaitza da. **Programa printzipio hauetan zimentatzen da:**

- a) **PRESTAKUNTZA:** garapenerako proiektuetan egiten diren praktikek balio handia dute ikasleen hezkuntzarako. Ikasleek euren prestakuntza akademiko eta profesionala hobetzen dute, gauza berriak ikasteko eta trebetasun berriak garatzeko era ematen dieten esperientzien bidez.
- b) **ENPATIA:** praktika hauetan ikasleei garapenerako lankidetzarako motibazio handia eskatzen zaie. Gureak baino oztopo handiagoak eta baliabide urriagoak eta desparekotasun handiagoak pairatzen dituzten gizarteekin lankidetzan jarduteko gogoia da garrantzitsuena, eta ez praktika interesgarri edo kitzikagarriak egiteko gogoia.
- c) **GAZTETASUNA:** ikasleek proiektu bakoitzarekin zerikusia duten herrialdeetako gazteekin batera hartzen dute parte proiektuko ekintzetan.
- d) **KOMUNIKAZIOA:** funtsezkoa iruditzen zaigu proiektu honen berri zabaltzea eta ezagutzera ematea. Bai HYPERLINK "<http://www.ehu.eus>" webgunean eta bai HYPERLINK "<http://www.euskalfondoa.org>" webgunean Gaztenpatiaren mikrogune bat jarriko dugu, sare sozialetarako estekekin. Hortik dinamizatuko ditugu aurrera eramaten ditugun ekimen guztiak. Bestalde, gure proiektuaren berri eta bertan parte hartzen duten pertsonen berri eduki ahal izango dugu egunik egun, une bakoitzean elkarlanean egiten ari diren ekintzen berri izanik. Ikus-entzunezkoen munduak berebiziko garrantzia izango du Gaztenpatian, eta bai Ikaika Media, bai UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoa eta bai proiektuan parte hartzen duten ikasleak arduratuko dira komunikazio hori «bizirik» mantentzeaz.

2015/16 ikasturte honetan UPV/EHUko 5 ikastegiko 15 ikasle (6 emakume eta 9 gizon) joan dira praktikak edo GRALA egitera garapenerako lankidetzaren proiektuetan Euskal Fondoak lan egiten duen hiru herrialdera: Guatemala, El Salvador eta Nikaraguara.

Gaztenpatian 2015/2016 ikasturtean parte hartu duten ikasleak, ikastegiaren eta xede herrialdearen arabera

HERRIALDEA	JATORRIZKO IRASTEgia	IRASTEgiAR, GUZTIRA
Gaztenpatia Suchitoto: El Salvador. Generoa	Psikologia F.	1
	Gizarte eta Komunikazio Zientzien F.	3
Gaztenpatia Morazán (Universidad Segundo Montes) El Salvador. Arkitektura	Arkitektura GET	3
	Hezkuntza eta Kirol F.	4
Gaztenpatia Alta Vera Paz-Guatemala-: Kirola-Elikadura	Gizarte eta Komunikazio Zientzien F.	1
	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola	1
Gaztenpatia San Carlos Nicaragua: Ingeniaritza eta ura	Arkitektura GET	2
GUZTIRA		15

Gainera, esperientzia honen testuinguruan hiru irakasle (bi gizonezko eta emakumezko bat) El Salvadorrera, Guatemalara eta Nikaraguara joan dira tutoretza lanak egiteko eta harremanak estutzeko ikaskuntza komunitateekin (Colectiva feminista de desarrollo local de Suchitoto, El Salvador; Iniciativa civil por la democracia INCIDE Alta Vera Paz, Guatemala; Asociación para el fomento del Desarrollo local ecosostenible del Río San Juan (ASODELCO) San Carlos, Nikaragua; Instituto Tecnológico Meanguera de Morazán, El Salvador).

3.8.5. Programaren amaierako balorazioak.

Gure gizartearen erronka handiei heltzeko premiatik abiatuta, unibertsitatea giltzarrizko eragilea da garapen gizatiarra eta jasangarria sustatzeko. Abiapuntu horretatik, curriculumaren jasangarritasuna bide horretan aurrera egiteko tresna da. Ildo horretan, ebaluazioak, inkestek eta elkarrizketek modua ematen digute ondorio batzuk ateratzeko praktika eta GRAL programaren eraginez eta programa honek egiten duen ekarpenaz curriculum jasangarritasunaren alde.

Lehendabizi, programa ezarri zenetik joan diren hamabi ikasturteak aztertuta, egiaztatu ahal izan dugu programak aldatu egiten dituela parte hartzaileen jarrerak.

Gainera, titulazioen gaitasun orokorretan deskribatzen diren abileziak garatzen ditu ikasleengan, ikasgelan nekez lortuko lituzketenak, hala nola egokitze gaitasuna eta arazo jakin batzuei aurre egiteko ahalmena. Ildo horretatik, programak ematen dituen bizipenak aberasgarriak dira bai ikasleentzat bai irakasleentzat maila profesionalean zein pertsonalean.

Bizitza, ekoizpen, kontsumo eta jasangarritasun ereduak jarrera kritikoaz aztertzeke kezkaekin, programak laguntzen du hainbat gauza kolokan jartzen, parte hartzaileek azaldu dutenez.

Erakundeek dagokienez, programari esker hezkuntza erakundeek konpromisoa hartzen dute gizartearekin, erraztasunak ematen dizkietelako ikasleei, entitate sozialekin koordinazioan, garapenerako lankidetzaren proiektuetan parte dezaten.

Beste alde batetik, ikusi da programa ona dela irakasleen prestakuntzarako eta motibatorako.

Laburbilduz, eta ebaluazioaren mugak onartuta ere, uste dugu programa

tresna indartsua dela curriculum jasagarritasuna bultzatzeko.

Edozelan ere, ebaluazioaren bidez eskuratutako informazio gehigarria kontuan hartuta, azpimarratu beharra dago programa hauek alde guztien inplikazio handia behar dutela arrakasta izateko: goi mailako hezkuntzako erakundeena; bertako irakasleena; bertako ikasleena; entitate sozialena; eta programak gauzatu eta garatzeko baliabideak eman ditzaketen erakunde publikoena.

Etorkizunari begira, aparteko arreta eskatzen duten zenbait kontu antzeman ditugu, programa hobetzen lagunduko luketenak. Horietako batzuk dira programan eragile berriak sartzea, ebaluazioak sistematizatzea eta irakasleen prestakuntza espezifikoak sendotzea.

4. 2015eko AURREKONTUA, GENERO IKUSPEGIAREKIN

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzak Bulegoan uste dugu genero desparekotasunik ez duen gizarte baten alde lan egiteko, ezinbestekoa dela genero ikuspegiarekin lan egitea. Genero begirada tresna orokorra izan behar da lanaren arlo guztietan, eta, beraz, baita aurrekontuetan ere.

Funtsezkoa da jakitea zenbateko baliabideak bideratzen diren genero arrakalak gutxitzera, diru baliabiderik gabe nekez lor baitaiteke helburu hori.

Hori dela eta, Garapenerako Lankidetzak Bulegoak aurrerantzean bere aurrekontuetan ondo zehaztu eta bereziko du genero desparekotasunak gutxitzearen aldeko lana.

Txosten honetan 2015eko ekitaldiko gastuak hartu dira erreferentziatzat, hori baita itxitako azken ekitaldia.

Garapenerako Lankidetzak Bulegoak kudeatzen ditu UPV/EHUK garapenerako lankidetzara bideratzen duen aurrekontua, Euskal Fondoarekin sinatutako hitzarmen bat (Practicuma edo Gradu Amaierako Lana garapenerako lankidetzan egiten duten ikasleentzako bekak finantzatzen dituena) eta Ikasleen %0,7 Elkartasun Funtsa. Azken hori osatuta dago ikasleek matrikula egitean garapenerako lankidetzaren alde borondatez emandako %0,7 gehigarriarekin.

Garapenerako Lankidetzak Bulegoaren finantzaketa, 2015		
	€	%
UPV/EHU	165.680,25	% 77,42
2014ko gerakinak	8.753,31	% 4
Ikasleen % 0,7 Elkartasun Funtsa	23.048,93	% 10,77
Euskal Fondoarekiko hitzarmena	15.000,00	% 7,1
Ikastaro monografikoen matrikulak	1.510,00	% 0,7
Guztira	213.992,49	% 100

Gastuaren helburuei begiratuta, hauek izan dira 2015ean garatutako programen zenbatekoak:

Garapenerako Lankidetzaren Bulegoaren aurrekontu bateratua, 2015							
BATERATUA	Zenbatekoa	%	K EMAKUMEA	GIZONAK	K EMAKUMEA	GIZONAK	Kolektiboa
kapitulua. Langileak	94.280,25	% 44,06	2	0	% 100,00	% 0	AZP
2-6 kapituluak							IRI/AZP Ikasleak
Dietak eta administrazio gastuak	5.444,97	% 2,54					
Garapenerako lankidetzaren proiektuen eta ekintzen deialdia	40.000	% 18,7	1	3	% 25	% 75	IRI/AZP Ikasleak
Garapenerako lankidetzari buruzko ikastaro monografikoak	14.333,14	% 6,7	188	56	% 77	% 23	Ikasleak
GRAL eta Practicumeko ikasleentzako bekak	57.750	% 27	58	19	% 75,32	% 24,68	Ikasleak
Garapenerako hezkuntzari buruzko jardunaldi eta ekintzak	2.184,13	% 1					Ikasleak
2-6 kapituluak, guztira	119.712,24	% 55,94					
GUZTIRA	213.992,49	% 100					

4.1 Gogoeta orokorra

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak kudeatutako jardueren eragina neurtzean ikusi dugu portzentajeak desorekatuak direla sexuei dagokienez.

Alderik handiena ikasleei bakarrik zuzendutako programetan dago, bai ikastaro monografikoetan (% 77 emakumeak dira) eta bai Practicumean eta Gradu Amaierako Lanean (programan parte hartu duten ikasleen % 75,32 dira emakumeak). Lerratz honen arrazoietakoa bat izan daiteke prestakuntza ekintza hauek egin direla emakumeen presentzia handia dagoen ikastegietan, hala nola irakasleen unibertsitate eskoletan, Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolan eta Psikologia Fakultatean.

4.2. Hobekuntza proposamenak

Bulegoak antolatzen dituen jardueretan ikasleen parte hartzeari dagokionez antzemandako «feminizazio» hau hausteko, 2016/17 ikasturteari begira ahalegina egin da, ikastaro monografikoen plangintzan, ahalik eta ikastegi gehienetara heltzeko, indar berezia eginez ikasle gehienak gizonezkoak diren ikastegietan (ingeniaritza eskoletan). Horretarako, Mugarik Gabeko Ingeniaritza ikasle elkartearen laguntza daukagu. Hitzarmen bat daukagu haiekin, genero gaiak sartzeko hiru campusetako ingeniaritza eskoletan emango ditugun monografikoetan.

2016/17 ikasturterako ahaleginduko gara informazioa biltzeko sistema hobetzen, hartara hobeto ezagutu dezagun zelako harrera egiten dioten gizonek eta emakumeek gure jardueri. Horretarako, gure galdetegi guztietan, bai izena ematekoetan eta bai ebaluazioa egitekoetan, parte hartzaileen sexuari buruzko informazioa sartuko dugu.

Era berean, Lankidetzak Bulegoak martxan dauzkan diru laguntza guztietan jarraituko dugu nahitaezko betekizun gisa eskatzen proiektu guztiak genero analisi batekin aurkeztea. Aldi berean, bulegoan aholkua eskainiko dugu genero ikuspegi hori behar den zorrotasunaz eman dadin. Bestalde, Lankidetzak Bulegoak generoaren araberako jarraipena egingo die bere deialdietara aurkeztutako lankidetzak proiektuen gaiei.